



"BAKEA KOLOREZTATZEN" gatazka armatuek jotako hurrekiko sentsibilizazio kanpaina da, Gurutze Gorriak antolatua, 12 eta 18 urte bitarteko ume eta gazteei zuzendua

Zergatik gatazka armatuek jotako hurrei buruzko kanpaina?

Umeak dira gaur egungo gatazka armatuek gehien kaltetuak

Hil egiten dira, zauritu edo elbarritu, traumatizatu, gaixotu; beren familiarengandik hurruntzera edo banatzera behartuta daude askotan, umezurtz gelditzen dira, abusu sexualak jasaten dituzte eta, oro har, mota guztietako bortizkeriak sufritzen dituzte eta era guztietako gogorkerien lekuko bihurtzen dira.

Ume hauetako batzuek gatazka jasateaz gain soldadu bezela parte hartzera behartuta daude.

Umeek eta gazteek egoera hori ezagutu dezaten nahi dugu Gurutze Gorrian

Haurrak babesteari lehentasuna eman behar diogu guztiok edozein egoeratan.

"BAKEA KOLOREZTATZEN" kanpainaren helburua zein da?

"BAKEA KOLOREZTATZEN" kanpainaren helburua hau da: umeak eta gazteak sentsibilizatzea eta kontzientziaztea gatazka armatuek jotako hurrek dituzten arazoez, horrela, bake eta berreraikuntza eragile izan daitezen eta, halaber, elkarbitzita, giza eskubideen hedapena eta giza baloreak susta ditzaten.




Zelan lortu?

- Gatazka armatuak hurrei ekartzen dizkieten ondorioak ezagutarazita.
- Bakeari, tolerantziari eta giza baloreei begira eta haurren eskubideen errespetuan hezita.
- Ume eta gazte guztiak animatuta gatazka armatuan eta gatazka armatuaren ondorengo egoeran bizi diren haurren egoera hobetzeko konponbideak bilatzen parte hartzera



"BAKEA KOLOREZTATZEN" sentsibilizazio-kanpaina baino zerbait gehiago da.



"BAKEA KOLOREZTATZEN" gatazka armatuek jotako hurrei buruzko nazioarteko Batzarra 2003ko azaroaren 5etik 7ra izango da, Valentzian.

Erakusketa

Kanpainan zehar gure herrialdeko eta bai gatazka armatuan eta gatazka armatuaren ondorengo egoeran bizi diren herrialdeko 12 -18 urte bitarteko ume eta gazteek egindako marrazkiak, olerkiak eta beste material batzuk bilduko dira. Material horrekin erakusketa egingo da, nazioarteko Batzarraz batera.



Informazio gehiagorako:
www.cruzrojajuventud.org
www.cruzroja.es





Bakea Koloreztatzen
GATAZKA ARMATUEK
jotako hurrekiko
SENTSIBILIZAZIO-
Kanpaina



+ *Gazteen Gurutze Gorria*